

**BAT, BI, HIRU, LAU
BOST, SEI, ZAZPI,
EUSKALDUNAK IRABAZI
IRABAZI. AURRERA!**

1. Ba dogu kolko bete kontu eta kantu, ez atzo eta ez gaur dana ez da santu.

2. Lehendik nago hartuta ni atentziona: pentzinoa behera ta gora tentzinoa.

3. Izan dogu bizitzan hainbeste histori, ez dauka edozeinek gure kategori.

4. Lehen beharra sobre ta jan-edana pobre; orain beharrik ez ta danetatik sobre.

5. Oker suertatu jaku munduko karrera: haginak jausi eta txuletak aurrera.

6. Gogoan hartzekoak zaharraren kontuak: eskola gitxikoak, baiña ez tontuak.

7. Oheratuta-itzarrik, jagita logura; kilikili gitxi ta edonun hazkura.

8. Errez egiten dogu plit plast eztropezu, orduan alperrik da santuei errezu.

9. Hustu barruko gatxa kendu amorrua, eta bete goraino geroko zorrua.

10. Ez dago kontu danak esaterik hemen; esan daigun: "sekula sekulorun. Amen".

A. Martzel